

B

BARREN

rikardo
arregi

TOKIKOM

Kazetaritza saria BARREnera

Ainara Argoitiak jaso du Epaimahaiaren Sari Berezia

ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

LO SAKONA ETA HORRENBESTEZ ATSEDEN HARTZEA ESTUKI LOTUTA DOAZ KOLTZOI ON BAT IZATEAREKIN. BEHAR BEZALA ATSEDEN HARTZEKO, ONDO AUKERATU BEHARRA DAGO KOLTZOIA, EZ DUGULAOK ALFERRIK BIZITZAKO ZATI HANDI BAT IGAROTZEN LOTAN. HORRETTARAKO, KOLTZOIAREN GERUZEI ERREPARATU BEHAR DIEGU. BERAZ, ZERGATIK EZ DUGU MATERIALIK ONENETAN INBERTITUTUKO? QUERCUS DA AUKERAKETA FIN, DOTORE ETA ZORROTZENA.



Zure erosketak
interesik gabe
finantzatzen ditugu!




elgoibarkoizarra

OLDSAN

terxy

Oihana
Ohe geriatrikoak

KEYTON
Masajodun bossukiak



Badatoz Sanbartolomeak!

Publizitatea jartzeko:

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.com





**Ainhoa
Lendinez**

Kaixo, Iñi!
Nahaste Borraste-
ren biharamunarekin
nago oraindik. Zergatik da
lasterketa hau, horren berezi eta
gogorra? Gogoan daukat lehenen-
goz parte hartu nuenekoa. Orain dela zortzi

bat urte? Nerbioak jota nengoen. Aitak urtero egina zuen ordura arte. Ni neu “botilero” aritzen nintzen berarekin: irteeran animoak eman, bizikleta uzten zuenerako zapatilak gertu eduki, eta noski, bere bizikleta maitea honda ez zedin plazan adi-adi egon. Horrela iritsi zen nire txanda. Gurean aitak beti erakutsi digu parte hartzea dela garrantzitsuena, azkena amaituta ere. Baina Nahaste Borraste berezia da, eta aitak hau esan zidala uste det: “*egurra, Ainho!*”. Argi zegoen, lekukoa pasa zidan. Lehenengo urtean ederra egin zidaten nerbioek. Irteera-tiroa eman zutenean erori eta katea atera zitzaidan.

“Urteko lasterketa gogor eta bereziena da niretzat Nahaste Borraste”

Bakarrik geratu nintzen plazan. Ama hesitik lasaitzeko oihuka. Katea sartu eta ziztuan atera nintzen. Bizikletakoa amaituta, han neukan aita zapatilekin zain. “*Berandu zatoz Ainho! Zer gertatu da?*”. “*Katea atera zait aita, baina gero kontatuko dizut, pasa zakua!*”. Mar-ka da gero, lasterketa erdian kontu eske! Berak parte hartzen zuenean baino urduriago egoten da-eta orain. Urtero esaten diot: “*aita, hauek nire zapatilak, gero gertu eduki bale?*”. Joan den urtean 45 zenbakiko zapatila batzuekin etorri zitzaidan trantsizioan. Zenbat urte, hainbat anekdota. Beti esaten dut, urteko lasterketa gogor eta bereziena dela niretzat. Askotan pentsatzen det, aitak pasa zidan lekukoan, herriko probak bultzatzeko grina ez ezik, bizipoza eta nerbioak ere bazeudela ezkutuan.



**Iñigo
Lariz**

Ainho, neu ere ibili naiz Nahaste Borraste-
ren biharamunaz, baina hori beste kontu bat
da! Gogoan dut lehenengoz parte hartu
nuenekoa. Garai haietan (hogei urte inguru
pasa dira iada!) bi froga antolatzen ziren.
Gazteek parte hartzen genuen lehenik eta na-
gusiak irteten ziren ondoren. Haiek izan ziren
nire lehen lasterketak. Prestaketa; astebete le-
henago etxe ondoko *plazoleta* inguruan korrika
egindako saio pare bat. Gaur egunekoaren antze-
koa, alajaina! Baina orduan nagusiagoekin aritzen gi-
nen eta noski, hauek egurra ematen ziguten. Nagusien laster-
keta ere berezia izaten zen niretzat. Parte hartzaile asko izaten ziren
bertan, denetariokoak gainera. Herriko kirolari porrokatuek hartzen zu-
ten parte, eta baita saltsa-algara gogoko zutenek ere. Benetan herri-
koia zen lasterketa hura. Jendeak ez zuen bertan parte hartzeko bel-
durrik, ez lotsarik, ezta besteek pentsatuko dutenaren burujarik ere.
Herrian inoiz baino jende kirolzale eta kirolari gehiago dagoen honetan,
garai bateko probaren herrikoitasunaren falta somatzen dut. Izan ere,
aurten asko poztu arazi nauten aurpegi berri batzuk ikusi ditut baina,
non daude gazteak? Non inguruko zikloturistetan parte hartzen duten
txirindulariak edo Behobian irteten diren korrikalari elgoibartar mor-
doa? Zaku eramaleak bakean lagako ditut gaurkoan.

“Garai bateko herrikoitasunaren falta somatzen dut”


Aurtengoa berezia izan da niretzat, astebete arinago entrenatzen
ari nintzela orkatila bihurritu nuen eta ez nengoen sasoi betean. Baina
azkenengo momentuan, parte hartzea erabaki nuen. Eta ez nahiz ba-
tere damutzen hartutako erabakiaz. Beste jokamolde batekin aritu nin-
tzen, normalean baino lasaiago aritu ere, eta barru barrutik gozatu
nuen beste behin. Izan ere, berezia da gure Nahaste Borrasteko mun-
duko txapelketa. Zeini okurrituko ote zitzaion hogeita bost kilotako
hondar zakua eramatearen kontua? Baita asmatu ere hark!



ESKERTZA

EULALIA DIAZ GABEZA

2013ko ekainaren 28an hil zen, 96 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enarrantzuzkunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZaXal



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enarrantzuzkunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Arnaldo Otegiren askatasuna eskatzeko lip-dub bideoa

Arnaldo Askatu Herri Ekimenetik zuzentzen gatzazkizue. Idatzi honen bitartez, zuen eta gainontzeko Elgoibarko elkarte nagusien laguntza eta babesa eskatu nahi dizuegu antolatzen ari garen hurrengo ekimenerako.

Urriaren 13an Arnaldo Otegik espetxean lau urte beteko dituela kontuan izanda, Fermin Muguruza abeslariak Arnaldoren askatasuna eskatuz, apropos eginiko abestiarekin lip-dub deritzon ekimen bat egiteko asmoa daukagu Elgoibarko kaleetan. Era honetan Arnaldoren askatasuna eskatzeaz gain, berari zein etxeko-ei gure elkartasuna adieraztea nahi diegu.

Ekimen honetarako Elgoibarko nahiz kanpoko herritarrez gain, garrantzitsua iruditu zaigu herriko kirol, kultur zein bestelako elkarteen parte hartzea.

Guzti honi forma ematen joateko asmoz, datorren ostegunean, uztailak 11, bilera bat egingo dugu Kultur Etxean, 19:00etan. Eskertuko genuke zuen elkarteko ordezkarien baten edo zenbaitzuren presentzia. Edozein modutan, ezingo bazenute, izango dugu aukera aurrerago zuekin ere egoteko, beti ere, zuek prest bazaudete. Eskerrik asko aldeaz aurretik, eta agur bat.

Arnaldo Askatu Politika Askatu Herri Ekimena

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Basarte auzoa autokarabanaz beteta dago: "Gure auzoak Basarte kanpina dirudi. Herritar askok gure auzoan aparkatzen dute autokarabana, eta denbora luzez egoten dira leku berean. Batzuek, gainera, zebra-bide aurrean aparkatzen dute, eta horrek arazoak sortzen ditu, izan ere, bide gurutzatzerakoan ez da ondo ikusten. Autokarabana horien jabe asko ez dira auzokoak, eta ez zait bidezkoa iruditzen hara etortzea euren ibilgailuak aparkatzera. Iruditzen zait norbaitek neurriak hartu beharko lituzkeela". Ricardo Garate hirigintza arduradunak esandakoaren arabera, ibilgailuak ezin dira bost egun baino gehiagoz leku berean aparkatuta egon. Berak dio hori zaintzen ibiltzen direla udaltzainak, eta horren arabera neurriak hartzen dituztela. Esate baterako, Sigmako aparkalekuan denbora luzez aparkatuta zegoen karabana bat kendu zuten orain gutxi.



Erabili ostean garbitu egin behar dira Idotorbeko parrilak: "Eguraldi ona egiten duenean herritar asko igotzen dira Idotorbera egunpasa, eta askok hango parrilak erabiltzen dituzte bazkaria egiteko. Hori guztia oso ondo dago, baina gero, parrilak garbitu egin behar dira. Norberaren atzetik beste batzuk etorriko dira parrila bera erabiltzeko asmoz, eta ez da bidezkoa dena zikin-zikin aurkitzea".



Txalo bat San Pedro jaietan parte hartu duten guztiei: "San Pedroko jai batzordeak eskerrik eman nahi dizkie auzoko jaietan lagundu eta parte hartu duten guztiei. Asteburu polita pasatu dugu, giro ona nagusitu da auzoan eta herritar asko hurbildu dira jai giroaz gozatzera. Datorren urtean gehiago eta hobeto egiten saiatuko gara. Mila esker guztioi".



Eskerrik asko kalean aurkitutako objektuak Udaltzaingoa entregatzen dituen jendeari: "Osasun txartela galdu nuen, eta Udaltzaingotik deitu zidaten, nire txartela han utzi zutela esateko. Sekulako poza hartu nuen, eta eskerrik eman nahi dizkiet kalean aurkitu eta txartela han utzi zuen herritarrari. Horrelako jokabideak txalotzekoak iruditzen zaizkit. Eskerrik asko".



ESKERTZA

ROSI ETXANIZ GARAGARZA

2013ko uztailaren 2an hil zen, 67 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Txarridunak irabazi du aurtengo Pintxo lehiaketa

Herritarren saria Sigma jatetxeak jaso du, eta Ibai-Ondori eman diote baserriko produktuekin eginiko pintxo onenaren saria

Txarriduna jatetxearen pintxoak irabazi du aurtengo pintxo lehiaketa. Epaimahaikideen iritziz, “pintxo originala, dotorea eta goxoa” aurkeztu du aurtan Txarridunak, eta berari eman diote puntuaziorik onena. Txarriduna jatetxeak irabazita zeukan beste behin ere lehiaketa hau, beraz, bigarrenkoz jantzi du Imanol Urainek txapela. Gabi jatetxeak egin du bigarren, eta Viento Sur gastroteka izan da hirugarrena. Herritarren ustez, baina, Sigma jatetxeko pintxoa izan da onena. 11.457 boto eman dituzte herritarrek, eta Sigmako pintxoak jaso ditu puntu gehien. Elgoibarko baserriko produktuekin eginiko pintxo onenaren saria, bestalde, Ibai-Ondori jatetxeak jaso du.

Balorazio positiboa

Pintxo lehiaketaren bosgarren edizioa izan da aurtengoa, eta sekula baino taberna gehiagok hartu dute parte. 25 izan dira guztira parte-hartzaileak, eta antolatzaileak oso pozik agertu dira partaidetza horrekin. Epaimahaideek esan dute aurtengo pintxoak oso landuak eta goxoak izan direla, oro har, eta erabakiak hartzea ez dela erraza izan. Tabernariak ere gustura geratu dira pintxo lehiaketak herritarrengan izan duen arrakastarekin. Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, taberna bakoitzak mila pintxotik gora saldu ditu lehiaketak iraun duen egunetan.



Artiboko irudia: 2010ean ere Txarridunak irabazi zuen.

Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikasleak Londresen izan dira



Orain dela hiru urte hasi ziren Helduen Hezkuntza Iraunkorreko eskoletan ingelesa irakasten. Zazpi laguneko talde batekin hasi ziren, eta aurtan 22 lagun bildu dira ingelesa ikasteko; gehienak 60 urtetik gorakoak. Eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko Londresera egin dute bidaia, eta oso ondo moldatu direla azaldu dute. Herritarrak animatu nahi dituzte ingeles eskoletan izena ematera.

Palentzia inguruetan ibili dira Haizea Emakume Taldekoak

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, Valladolid eta Palentzia inguruetara egin dute bidaia Elgoibarko 45 emakumek. Gaztela-Leongo hiri horietan zehar hainbat kultur jarduera burutu dituzte, eta asteburu polita izan dutela azaldu dute. Hiriko eraikin esanguratsuenak ezagutu eta hango gastronomiaz gozatzeko aukera ere izan dute.



Izena **Guillermo Hijano**



Euskadiko Olinpiada Matematikoak irabazi ostean, Espainiako txapelketan hartu du parte Guillermo Hijanok, eta aipamen berezia jaso du. Hego Euskal Herriko, Herialde Kataluniarretako, Galiziako eta Espainiako herrialde ezberdinetako 61 ikasle batu ziren Andorran. Matematika frogak egin arazi zizkieten guztiei, eta, banakako probetan sei onenak saritu zituzten ohorezko aipamenerekin. Horien artean dago Guillermo Hijano Elgoibarko institutuko ikaslea. Antolatzaileek ohorezko aipamenak jaso zituzten sei lagunen emaitzak eta sailkapenak ezagutzera eman ez badituzte ere, probetako batean 10eko nota jaso zuten bi ikasleetako bat da Hijano, Bartzelonako ikasle batekin batera. Hori dela-eta, bi ikasleok ohorezko aipamen berezia jaso zuten.

Otegiren aldeko lip-dub bideoa egin nahi du Arnaldo Askatu Herri Ekimenak

Arnaldo Askatu herri ekimenak lip dub estiloko bideoa grabatzeko asmoa dauka, Arnaldo Otegi aske uzteko eskatzeko. Urriaren 13an lau urte beteko ditu Arnaldo Otegi espetxean, eta egun horretarako grabatu nahi dute lip-dub bideoa. Fermin Muguruza musikariak Otegiren askatasuna eskatuz egindako abestiarekin grabatuko dute bideoa Elgoibarko kaleetan. Otegiren askatasuna eskatzeaz gain, bere etxekoei eta senideei babesa erakutsi nahi diote ekimen honekin. Bideoa grabatzeko herritarren laguntza behar dute, eta bereziki, herriko kirol, kultura edo bestelako elkarten kolaborazioa eskatu dute Otegiren aldeko plataformatik. Ekimena antolatzeko leheneengo bilera uztailaren 11n egingo dute, 19:30etik aurrera Kultur Etxean. Herritar norbanakoak eta elkarteetako ordezkariak gonbidatu dituzte batzarrera.

Bestalde, Mark Demesmaeker ALEko eurodiputatu flandriarrak joan den astean Espainiako agintariek Arnaldo Otegi kartzelan bisitatzea debekatu ziotela salatu du Strasbur-

goko Parlamentuan. Horrez gain, Demesmaekerrek agintari espaino-lengandik jaso zuten "tratu eskandalagarria" salatu du.



Sanferminetako entzierroak pantaila handian

Sanferminetako entzierroak zuzenean eta pantaila handian ikusteko aukera eskainiko du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Domekan hasi eta hilaren 14ra arte, 8:00etan puntuan eskainiko dituzte lruñeko entzierroak Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaldura
Zolak ezarria
Lantutako egur, aluminio, PVC
Pisua orokorra



AINARA ARGOITIA

‘BARREN’-eko kazetaria

“Herri komunikabideetan ere lan profesionala egiteko gai garela erakutsi dugu”

Epaimahaiaren sari berezia jaso du Ainar Argotia BARRENEko kazetariak (Eibar, 1978) Rikardo Arregi kazetaritza sarietan. Argitaratutako lau lanengatik saritu dute, bereziki bi piezagatik. “Euskal Herrian bizi dugun memoriaren berreskuratze eta bakeranzko garaiotan”, Ainarak egindako ahalegina “gogoangarria” dela esan du epaimahaiak, “bereziki gai korapilatsuak lantzeko hartu duen tonu serio eta estridentziarik gabekoagatik”. Kazetariaren idazkeraren “dotorezia eta adierazkortasuna” azpimarratu ditu epaimahaiak.

Rikardo Arregi kazetaritza sarietan epaimahaiaren sari berezia eman dizute, BARRENEAN argitaratutako hainbat lanengatik. Zer suposatzen du zuretzat sari honek?

Ezusteko ederra izan da, gutxitan izaten diren horietakoa. Ohore handia da niretzat horren sari garrantzitsua jasotzea, eta une hori nirekin batera saritu dituzten gainerakoekin konpartitzea. Profesional handiak dira denak ere, eta haietako batzuk lagun minak ditut, gainera. Izugarri poztu nau sariak. Zapatuko ekitaldian esan nuen bezala, ederra da norbere lana baloratzen dutela ikustea, eta are ederragoa aipatzen dituzten lanak gurea moduko herri komunikabide txiki batean argitaratutakoak direnean.

Zapatuan eman zizuten saria Andoainean. Nola bizi izan zenuen eguna?

Berezia izan zen. Lo gutxi eginda joan nintzen, urduri oso. Lankideak, aspaldiko lankide eta lagunak, eta niretzat eredu diren kazetari asko topatu nituen han, eta alde horretatik berezia izan zen. Hara iritsita, lagun artean, lasaitu nintzen apur bat, baina epaimahaiaren arrazoiak entzun ostean, dar-dar batean igo nintzen oholtzara. Berbetan ere

ahaztu zitzaidan barren ia-ia!. Saria jasotzeko unea hunkigarria egin zitzaidan. Beatriz Zabalondo BERRIAN lankide eta nire hizkuntz arduraduna izandakoaren eskutik jaso nuen saria, eta oso berezia izan zen.

Pello Rubiori eginiko elkarrizketa eta 36ko gerra, elgoibartarren ahotan lanak nabarmendu dituzte, bereziki. Zer aipatuko zenuke lan horiei buruz?

Oso gustura idatzi nituela. Gozatu egin nuen. Berbaldu luzea eta atsegina izan nuen Pello Rubiorekin Txillarren, eta eskertzen diot gai horren inguruko estreinako elkarrizketa guri eman izana. Eskertzen diot, era berean, *dena ETA da* arrazoitzen zutenen zakuan jaus-teko arriskua bere egin eta elkarrizketaren eta erdibideak bilatzearen alde isilean egindako lana. Elkarrizketaren alde egingo duten gehiago behar ditugu Euskal Herrian. Besteak beste, Jesus Egiguren eta Arnaldo Otegi batu zituen mahai beraren bueltan, eta ez behin!. Euskal Herrian gertatzen ari zirenak ikusita, tartean ETAREN atentatuak, legez kanporatzeak eta atxiloketak, apustu handia egin zuten Txillarren batu zirenek. Zorixarrez, haietako bat, Arnaldo Otegi, kartzelan dute



preso, eta bestea, Jesus Egiguren, politikatik alboratu xamartuta. Ulertezina da, egia esan. 36ko gerra ere bada betidanik interesatu izan zaidan gaia. Zortekoa naiz, gainera, garai hartan gertatu zenaren berri etxean jaso dudalako. Ama, Barinagako (Markina Xemein) baserri batekoa dut, Kalamua azpikoa, eta han frentearen gordina bititza tokatu zitzaizen gure aittita eta amamari. Zorionekoa naiz, beraz, 36ko gerraren inguruko oinarriko ezagutza etxekoengandik jaso dudalako. Pena bakarra daukat. Umeegia nintzela orduan aittittak eta amamak kontatzen zizkigutenak bere osoan ulertzeko. Aspaldiko kontuak zirela begitantzen zitzaidan orduan, urrutikoak. Gaur atentzio handiagoko jarriko nien, baina hil ziren biak. Edozelan ere, Rikardo Arregi kazetaritza sariko epaimahaiak nabarmendu duen reportaje horretarako lehen pista Aitor Zabaleta kazetari elgoibartarrari zor diot. Gernikako bonbardaketan bi elgoibartar hil zirela jakin zuela esanez etorri zitzaidan, eta haien ondorengoen peskizian egindako elkarrizketa sorta baten ondorioa da erreportajea. Itzel disfrutatu nuen besteak beste, Julen Zabaleta, Angel Osoro, Miren

Vallejo, Julian Iriondo eta Itziar Ajuriarekin izandako berbaldietan. Gertakari latzak gogorazi nizkien erreportaje honetarako, eta eskertzen diet hartu zuten lana.

‘Egunkaria’ eta ‘Berrian’ hainbat urtez lanean jardun ostean iritsi zinen gurera. Nazio mailako egunkari batetik herri aldizkari batera etortzea atzera egitea izan dela esango zizuten seguru batek baino gehiagok. Zer da zuretzat BARRENEN lan egitea?

Entzun dut hori ere, ez dizut ukatuko, baina sari honek berak erakusten du herriko kazetaritzan ere egin daitezkeela gauza politak. Kazetaritza egiteko ez dago kanpora joan beharrik. Arantxa Urretabizkaia epaimahaikide izandakoak esan zuen ehizan ibili behar izaten dutela epaimahaikoek gurea moduko komunikabideetan, oihartzun apalagoa dutelako gure lanek, baina erakutsi dugu lan profesionala egiteko gauza gara. Polita da, gainera, herrian lan egitea. Bere alde onak eta txarrak ditu, jakina, baina ni gustura aritzen naiz komunikabide handiagotan lekurik izango ez luketenekin berbetan. Herria herritarrek egiten dute, eta atera kontuak zenbat daukagun kontatzeko! Gainera, nahi beste informazio daukagun garaiotan, nik uste dut jendeak balio berezia ematen diola herrikoari.

Hedabide lokalen garrantzia aipatu zuten ekitaldian. Zure ustez, zein paper betetzen dute herri hedabideek?

Funtsezkoa. Euskararen normalizatorako ezinbesteko tresna direla iruditzen zait, eta era berean, esango nuke herriko belaunaldien arteko transmisioan eta herrigintzan ere egiteko handia dutela.

Herritarrek estimatzen dituzte herri aldizkariak, baina badirudi erakundeetatik ez dela ikusten herrietan egiten den lana. Zer egin daiteke?

Ez nuke esango ez dutenik ikusten. Nik uste dut jakin badakitela tresna eraginkorrak direla, eta aitortu ez arren, badakidetela jakin, zenbat zor zaien herri aldizkarietara eta haiek sortu dituzten euskara elkarteetara. Diruz laguntzen gaituzte, hori bai, eta eskertzekoa da. Dena den, euskara lehenetsun dutela esan eta esan ari zaizkigu denak, baina gero hori ez da beti ondo ezkontzen darabilten politikarekin. Baliabideak gutxitzea ez dator bat ahotan darabilten hizkuntza politikarekin. Garai zailak dira, bai, eta denok daukagu gerrikoa estutu beharra; ados. Halaxe gabilta, gainera, aspaldian. Hala ere, zerbait estrategikoa dela baloratzen bada, ezin da zalantzan jarri hartan inbertitzea. Inbertsioa delako hau, nire ustez.

Nik garbi daukat euskara ez litzatekeela dagoen egoeran egongo herri ekimenetik sortutako hainbat eragileren ekarpen barik, eta uste dut erakundeetan daudeneke ere badakitela hori. Ez dezagun, beraz, atzera egin euskararen normalizazioan.

Sari honek herri komunikabideen lana saritu duela uste al duzu?

Nik hala hartu dut. Niri -eta esango nuke BARRENEN lantalde osoari- indar handiagok aurrera egiteko indarra eman dit. Guk ere ez ditugu garai errazak bizi, baina merezi du saiatzeak. Buruan daukaguna gauzatzen asmatu behar dugu. Herritarren babesa badaukagu, eta hori dena da.

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke?

Eskerrak eman, besterik ez. Eskerrik asko lankideei, irakurleei, eta astero-astero alea betetzen laguntzen diguten guztiei. Eskerrik asko, era berean, Eibarko ...eta kitto! euskara elkarteetara, hantxe eman nituelako aurreneko pausoak, eta mila esker, *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* lankide izandakoei, kazetaritzaz dakidana hantxe ikasi nuelako, Andoainen. Konfiantza handia jarri zuten nigan, batzuetan larregizkoa ere bai, eta estimatzen diet.

Ainhoa Andonegi



IÑAKI KONDE, Elgoibarko Izarrako lehendakaria

Berri onak izan ditugu BARRENEN: Ainara Argoitia kazetariari eman diote Rikardo Arregi sarietan Epaimahaiaren Sari Berezia, BARRENEN argitaratutako hainbat lanengatik. Eta hori pozgarria da niretzat, eta, baita Elgoibarko

Izarrarentzat ere. Han eta hemen entzun dugu egunotan BARRENEN izena. Elgoibarko mugak gainditu eta Euskal Herrian zehar entzun da gure aldizkariaren oihartzuna. Nazio mailako komunikabideetan, sare sozialetan, herrian eta kalean bertan ere zorionak eta txaloak jaso ditugu. Lehendik ere bagenekien arren, sari honi esker, komunikabide txikietan ere langile profesionalak daudela eta lan onak egiten direla erakutsi dugu. Merezitako saria izan da, dudarik gabe. Andoainen jaso zuen saria Ainarak, eta une hura emozioz beterikoa izan zen. Urduri zegoen, baina hitz politak eskaini zizkigun. Eskerrik asko. Nire zorionik beroenak Ainararentzat, eta BARREN egiten duzuen guztiontzat, bariakuen egiten diguzuen opariagatik.

20 urte bete zituen BARRENEN Gabonetan. Hasieran harri-duraz hartzen genuen aldizkaria ostiraletan, eta orain, gure bizitzako parte bihurtu da. BARRENEN gabe ostiralak ez dira berdinak. Elgoibarko Izarrako lehendakari naizenetik sarri entzun izan ditut aldizkariaren kontrako kritikak, baina gehiago izan dira laudorioak. Herritarrek estimatzen dute BARREN eta hori harro egoteko modukoa da Elgoibarko Izarrarentzat. Apustu garrantzitsua egin zuen elkarteak 1992an. Olentzeroren oparia izan zen BARREN urte hartan, eta ordutik gaur egunera arte egin duen bidea oparua izan da benetan.

Baina etorkizunera begira jartzen garenean laino beltzak ageri zaizkigu. Krisiaren eraginez, erakunde publikoetako diru-laguntzak jaitsi egin zaizkigu, publicitateak ere behera egin du azken urteetan eta aurrera egiteko zailtasunak ditugu. Hala ere, euskararen erabileran eta sustapenean eragiteko ezinbesteko tresna da BARREN, eta nola edo hala, lortuko dugu aurrera egitea. Elgoibarko Izarrak komunikazio proiektu sendo bati eusteko ahalegin guztia egingo du, eta horretarako, ezinbestekoa izango da herritarren babesa eta laguntza. Elkarlanean, lortuko dugu.

Erretratu zaharra



1983

1983. urteko argazki zahar hau Madariaga inguruetan aterata dago. Argazkiko gaztetxo batzuek naturarekin zerikusia zeukan lanen bat egin behar zuten eskolarako, eta aitzaki hori erabili zuten lagun artean egun pasa joateko. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen diren gaztetxo horiek. **Goian:** Idoia Santos, Ane Mugertza eta Unai Froilan. **Erdian:** Igor Froilan eta Imanol Santos. **Behean:** Ainara Mugertza, Iker Froilan, Irune Mugertza, Eider Mujika eta Miren Mujika.



**TXIKI EGUNERAKO
KAMISETAK SALGAI!**
Elgoibarko Izarraren bulegoan

10€ tan
(Bazkideek 9€ tan)

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

Jose Antonio Ruizek irabazi du Nahaste Borraste

Joan zen barixakuan jokatu zuten Nahaste Borraste proba herriko kale-etan zehar, eta urtero bezala, ikusmin handia piztu zuen Kimetz elkar-teak antolatutako proba horrek. 50 lagunek hartu zuten parte guztira, eta Jose Antonio Ruiz izan zen helmugaratzen lehenengoa, 18:26 denborarekin. Hala ere, ez zuen Iñigo Larizen marka hautsi, eta oraindik orain 18:01ean dago errekorra. Emakumezkoetan, Ainhoa Lendinez izan zen onena, 20:09 denborarekin. Argazki gehiago eta sailkapen osoa ikusteko: www.elgoibarren.net.



RENOVE PLANA



GALDARAK

Eusko Jaurlaritzaren eta EVE Energiaren Euskal Erakundearen eskutik 200€ arteko diru-laguntza jasotzeko aukera izango duzu, zure ohiko etxebizitzan kondentsazioko galdara jartzeko.

ETXETRESNAK

Eusko Jaurlaritzaren eta EVEren eskutik 125 € arteko diru-laguntza eskuratzeko aukera izango duzu, etxean energia kontsumo baxuko etxetresnak jartzeko. A+++ eta A++ motako hozkailu, ontzi garbigailu eta erropa garbigailuen erosketak 125 € edo 105 €rekin lagunduko dituzte.

LEIHOAK

Leihoak berritzeko %22 arteko diru-laguntza emango dute. Lehoi bakoitzeko 400 € emango dituzte gehienez, eta etxebizitza bakoitzeko, gehienez, 1.000 € banatuko dituzte.



BAINUGELAK • GASA • KLIMATIZAZIOA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 11-behea · 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa · Tfno.: 943 25 45 22 · Faxe: 943 25 45 23
ongi@ongielgoibar.com · www.ongielgoibar.com



Orain, "Renove planari"
esker galdara aldaketa
200€ merkeago!

Etxetresna
aldaketan ere
lagun zaitzakegu!





FONTANERÍA

Ibámar
ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea
Erakusketa/Faxa: 943 531 847
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOILA
- AIRE EGOKITUA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGAIK
- ERREFORMAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA



“Renove plana”

MILAR BIREn

Ubitarte 11 - 943 741 487 - bire@milar.es



LEHIOAK

SORALUZE

Altzairua - Poliuretanoa - PVC

Fabrika:
Olasope kalea, 66
Olaso industrialdea
Tel./Faxa: 943 742 103

Erakusketa:
Santa Ana kalea, 8
Tel.: 943 743 634
20870 Elgoibar

%22 arteko
deskontua
lehioetan




EUSKAL CURRICULUMA, ZOKORA

Nekez lortu ohi dena lortu du Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak: hezkuntza eragile guztiak bazea; hori bai, bere kontra. Wertek aurkeztutako hezkuntza erreformak, Frankismoaz geroztik Espainian egindako zazpigarrenak, hautsak harrotu ditu, besteak beste, gaur egungo hezkuntza helburuen kontrako norabidea markatzen duelako. Eduki espainiarrak zehaztu eta euskara zokoratu egiten ditu LOMCEk, PPren gehiengo absolutuak ahalbidetuta Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak.

Ainara Argoitia

Haserre daude hezkuntza eragileak. Wertek proposatutako legea “atzerapauso” pedagogikotzat jo dute sindikatuek eta hezkuntza eragileek, eta bat datoz Elgoibarko ordezkariak ere. “Aurreproiektua ez da egokitzen gure errealitatera. Europako Batasunak zehaztutako helburuak bete ditugu dagoneko hemen. Curriculumuma zentralista eta zentralizatzailea da, nazioarteko erakunde guztiak bultzatzen duten hezkuntza politiken aurkakoa. Ez dio erantzuten gure testuinguruari, eta hain justu ere hori da beharko genukeena: gure errealitatera egokitutako Hezkuntza Sistema eta lege propioa, hobekuntza bultzatu eta sistemari egonkortasuna emango diona”, laburbildu du Jabier Larrañaga Elgoibar Ikastolako zuzendariak. Larrañagarenaz gain, IMHko zuzendari Joxean



Egañaren, Mekako zuzendari Mariasun Larrañagaren eta Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteko bi ordezkariaren iritziak batu ditu BARRENEK. Hona hemen LOMCE legearen puntu nagusien erreposoa, herrikoen ahotan.

Gaztelania indartu eta euskara baztertu

Euskara hirugarren mailako egiten du legeak. Gaztelania eta atzerriko lehen hizkuntza (ingeleza) ikasgai ardatzetan sartu dituzte, baina ez euskara. Euskara “espezialitateko” ikasgaia izango da. Gaztelania indartu nahi du PPK, euskararekin “orekan” egon behar duela uste duelako. Era berean, hizkuntza koofiziala duten erkidegoetan gaztelaniaz

ikasgai nahi dutenek bermatuak izango dute aukera hori. Sare publikoak ezin duenean eskaini gurasoek nahi duten hezkuntza eredu hori, zentro pribatuetako matrikulak erakunde publikoek ordaindu beharko dituzte.

Ikasgai ardatzak

“Baliagarri” diren ikasgaiak indartuko ditu: ikasgai ardatzak. Gaztelania, Atzerriko hizkuntza, Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Geografia eta Historia sartuko dituzte ikasgai ardatzetan. Egunerokotan gutxienez ordutegiaren %50 hartuko dute ikasgai horiek. Gaurko hezkuntza eremuan funtsezkotzat jotzen diren oinarriko gaitasunek balioa galtzen dute lege berriarekin.

Euskal curriculuma

Eusko Jauriaritzak curriculumean dituen eskumenak nabarmen kamusten dira. Eduki zentralistetan oinarritutako curriculuma proposatu du Wertek, curriculum espainiarra. Horretarako, kontrol neurri bi izango ditu bereziki Espainiako Gobernuak: edukien auke-raketa eta ebaluazioa. Edukiak Madrilen erabakiko dituzte. Espainiako Gobernuak finkatuko ditu gutxienez edukien %55—Hizkuntza koofiziala duten erkidegoetan. Gainerakoe-tan, edukien %65 kontrolatuko du—. Hala ere, ikasgai ardatzei ematen zaien garrantzia ikusita, ondoriotzatu daiteke ikasgai horiei eskaini beharko dietela ikastetxeetan ordu gehien eta ahalegin handiena. Ihes egiteko aukera gutxi dute, gainera, gure ikastetxeetan, legeak ebaluazio sistema zorrotza ere ezartzen duelako. Horrexegatik, bigarren hori, ebaluazio sistemarena, ikusten dute hezkuntza eragile askok lege honek kontrolerako daukan neurri estuena. “Gutxieneko edukiak eta ebaluazio irizpideak kontrolpean izanik, errealitatean dena kontrolatzen du”, adierazi du Jabier Larrañaga Ikastolako zuzendariak.

Ebaluazio sistema

Administrazioak ezarritako froga bana egin beharko dute ikasleek 9, 12, 15 eta 18 urterekin. Lau azterketa izango dira, Madrildik finkatuko dituzten ikasgai ardatzen ingurukoak. Are gehiago, ebaluazio irizpideak ere Madrilen zehaztuko dituzte. Aurreneko azterketa Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan pasatu beharko dute ikasleek, ikasteko arazoak “garaiz” antzemateko. 12 urterekin egingo dute bigarren azterketa, Lehen Hezkuntza bukatzean, eta beste biak, derrigor gainditu beharrekoak aurrera egiteko, DBHn eta Batxilergoan egingo dituzte. Emaiza horiek ikastetxeen rankina plazaratzeko asmoa dauka gero Gobernuak. Berez, orain arteko hezkuntza legean galarazita zegoen rankin horien berri ematea, uste zelako hezkuntza sistema bera babes gabe uzten zela eta ikastetxeen arteko lehia sustatzen zela. Orain, ordea, bai.

Wert legearen arabera, ikasleek 14 urterekin aukeratu beharko dute zein bide hartu, eta azaldutako lau azterketa horiek baldintzatuko dute haietako askoren geroa. Izan ere, unibertsitatean jende asko dagoela-eta, bahea zorroztu nahi dute. Es-



“Izaera nazionala” indartu nahi du Ignacio Wert Hezkuntza ministroak.

kola porrotari aurre egitea da, Werten esanetan, neurri honen helburua. Ikasle “on” eta “txarrak” bereiztuko dituzte, eta “balio ez duten ikasleak” Lanbide Heziketara bideratuko dituzte, lehenbailehen lanera bideratzeko.

Lanbide Heziketari dagokionean LOM-CEk proposatzen duen sistema “zeharo obsoletoa” dela dio Mariasun Larrañaga MEKako zuzendariak. Lanbide Heziketako ikasketak bigarren mailako egin nahi dituzte, eta hori ez dator bat errealitatearekin. Azkeneko bost urteotan ikasle kopuruak %33 egin du gora Lanbide Heziketan, besteak beste, herritarrek garbi ikusten dutelako Lanbide Heziketaren eta enpleguaren artean harreman zuzena dagoela, eta enpresen beharretara egokitutako kalitatezko hezkuntza jasotzen dutela ikasleek”, azaldu du.

Bat dator IMHko zuzendari Joxean Egaña ere. Egañak ez du uste DBHko ikasleen ibilbidea aurreratzeak eskola-porrotta gutxituko duenik: “Oinarrizko Lanbide Heziketa DBHko ikastetxeetan 15 urtekoei ezartzeak, Erdi-Mailako Lanbide Heziketa bigarren mailako aukera bihur dezake, eta ez du aitortzen Euskadiren eskola-porrotaren errealitatea estatuko batz-bestekoa-rena baino askoz txikiagoa dela; ez du aitortzen ezta HLHI ikastetxeek (Hasierako Lanbide Hastapeneko Programek) DBH gainditzan ez duten ikasleekin egiten duten lan ona ere”. Era berean, goi-mailako heziketari dagokionean, Goi-mailako ziklo eta Unibertsitate graduaren arteko “pasabideak eta curriculum integratuak” bota ditu faltan Larrañagak. “Austria moduko herrialdeetan unibertsitate ikasle nagusien %80 aurreraz Lanbide Heziketa ikasitakoak dira”, esan du.

Batxilergoa

Batxilergoko ikasturte bakoitza gehie-nez behin errepikatu ahal izango dute ikasleek, eta kasu batzuetan salbuespen gisa onartuko dute ikasturte bera birritan errepikatzea. Lau modalitate izango dira aukeran: zientzietakoa, giza zientzietakoa, gizarte zientzietakoa eta arteetakoa.

Sexuagatiko segregazioa

Gaur arte, legeak ez zuen lagatzen sexu kontuengatik ikasleak baztertzen dituzten ikastetxeek diruz laguntzea, baina debeku hori bertan behera lagatzen du lege berriak.

Erlijioa

2006. urtean PSOEn gobernua eza-ri zuen Herriartasunerako Heziketa kendu eta Erljioa aukeratzen ez dutenentzat derri-gorrezko ikasgai bat ezarriko du: Balio Kul-tural eta Sozialak, Lehen Hezkuntzan, eta Balio Etikoak, DBHn. Wertek Espainiako Eliza katolikoko buruzagien esku lagatzen du erlijio ikasgaiaren inguruko eskumen osoa. Hezkuntza eragile askoren arabera, 1970eko erreforman baino ez zaio aitortu Erljioa ikasgaiari gaur besteko indarrak.

Ikastetxeen autonomia

Ikastetxearen autonomia emango zaiola dio LOMCE legeak, baina autonomia hori zuzendariaren esku geldituko da. Madrildik aukeratuko dute zuzendaria, eta eskola-komunitatearen parte-hartzea, dela gurasoena edota bestelako agenteena-hutsaren parekoa izango da. Ez du erabaki ahalmenik izango. Eskola-komunitatea osatzen dutenak informatuta izateko ar-dura izango du zuzendariak, baina gaur arte zuten erabaki ahalmen barik lagako ditu.

NOEMI OTEGI ETA NEREA GOROSTIZA Kalamua Guraso Elkarteko ordezkariak



Noemi Otegi eta Nerea Gorostiza, Unax eta Lore seme-alabekin.

Zerk kezkatzen zaitue gehien?

Gure eskolan ikasketa prozesuari berari ematen diogu garrantzia. Ume bakoitzari ikasteko erremintak ematea interesatzen zaigu guri, eta LOMCEk gure gurasoen garairako sistemara itzularazten gaitu. Azterketak eta buruz ikastea lehenesten ditu, eta hori gaur egungo ikasketa metodologia berritzailearen kontra doa zuzen-zuzenean. Pedagogikoki atzerapauso handia da. LOMCEren arabera, garrantzitsua ez da gure seme-alabek zenbat ikasten duten, baizik eta frogak gainditzeko bezainbeste ikasten duten. Gure ikasketa prozesuetan, gainera, ume guztiak hartzen dira kontuan. Lege hau, aldiz, oso klasista da.

Bahe antzeko bat pasa nahi dute, unibertsitatera "balio dutenak bakarrik" iritsi daitezten, eta gainerakoak lehenbailehen lanera bideratzeko. Lau errebalida ezarri dituzte.

Bai, tristea da. Guretzat garrantzitsua ez da gure haurrak unibertsitatera joatea edo doktoretza egitea, nork bere gaitasunak garatzea baizik, nork bere bidea topatzea. Ikasgai ardatzetan sartu dituzte haien ustez ikasgai garrantzitsuenak direnak, eta musikako eta plastikako orduak, esate baterako, gutxitu egin dituzte. Zergatik gutxien dituzte ikasgai batzuk? Hori gaindituta geneukan dagoeneko. Ume bat izan daiteke txarra matematiketan, baina izan dezake dohai berezi bat musikarako. Zergatik ukatu gaitasun hori garatzea? Perfil jakin bateko pertsonak egin nahi ditu ikasleak.

Sari esan da selektibitatea gainditzera mugatzen dela Batxilergoko prestakuntza, hein batean. Orain, bat barik, lau azterketa izango dituzte haurrek.

Bi gauza daude hor salatzekoak. Batetik, azterketaz josi nahi dituztela ikasleak, eta bestetik, eduki gehienak eta ikasleak ebaluatzeko irizpideak Madrildik finkatuko dituztela. Edukiak berdinak izango dira Murtzian zein Elgoibarren. Nola ulertzen da hori? Gurea bada ezaugarri berezidun herria. Dena den, edukiak Madrildik finkatuta etortzeak baino gehiago kezkatzen gaitu ebaluazio sistemak. Izan ere, lehenengoari ihes egiteko modua badago, orain arte ere egin izan delako, baina bestetik nekez egingo dugu ihes. Sistema horrekin Wertek ziurtatzen du haurrek PPK nahi dituen edukiak ikasi behar izatea. Gainera, gure haurrek izugarritzko presioa jasan beharko dute, guk jasaten genuena baino handiagoa.

“Pedagogikoki atzerapauso handia da”

Gizarte eragile askok salatu dute Frankismo garaira atzera egitea dela.

Ez dakigu Frankismo garairaino egitea den, gure garaian ere bazelako hori, dena buruz ikasi beharra, baina egia da kutsu politiko handia duela lege honek.

Erlijioa ere indartu nahi dute eskolan. Zer iritzi duzue hortaz?

Gure eskola mila kolorekoa da, eta neurri hori ez zaigu ezta bideragarria ere iruditzen, eskolan erlijio askotarikoak ditugulako. Iruditzen zaigu erlijioa lantzeko badaudela eskolaz kanpoko beste gune batzuk.

Non gelditzen dira behar bereziak dituzten umeak?

Helburu batzuk markatu dituzte eta horiek lortzen ez dituzten umeak baztertu egiten dituzte. Ez dituzte aintzat hartzen behar bereziak dituztenak, eta seguru gaude murrizketak ere izango direla, horiei laguntzea alferrikakoa ikusten dutelako. Pertsona “lehiakorrak” sortu nahi dituzte.

Finlandia hartu ei du eredu Wertek legea erreformatzeko orduan.

Eskola porrotari aurre egitea omen da legegaren helburua, baina gu ez gaitu kontuan hartzen. Eskola-uzte goiztiarra txikitzeko 2020rako jarri dituen helburuak aspaldi bete genituelako hemen [%14ren bueltakoa da Hego Euskal Herrian. Espainiakoaren aldean, apala].

Ikastetxeen autonomia ere kamusten du, baita zuen erabaki ahalmena ere.

Erabat, gainera. Eskola Kontseiluan gaude gu eta erabakitzeko ahalmena daukagu eskolako hainbat kontutan, baita zuzendariaren aukeraketan ere. Orain, Eskola Kontseilua organu erabakitzaila izatetik organu informatzaile izatera pasatuko da. Hierarkia bat ezarriko da eskolan, eta zuzendariak erabakiko du dena. Dena den, legeak indarra kenduko badigu ere, guk lanean jarraituko dugu gure presentzia bermatzeko. Legez kanpo jardun behar badugu ere, jardungo dugu. Uste dugu aukera handiagoa dugula guk, gurasook, legeari izkin egiteko gure seme-alabek Madrilek zehaztutako edukietatik ihes egiteko izango dutena baino.

Giro onean joan dira Idotorbeko San Pedro jaiak

Joan zen asteburuan ospatu zituzten San Pedro jaiak Idotorben, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, asteburu jendetsua izan zuten. Adin eta gustu guztietarako jaiak prestatu zituzten, eta herritarek izan zuten non gozatua. Orri honetan bildu ditugu asteburuko hainbat argazki.



Ikusmin handia piztu zuen idi probak.



Haritz Dantza Taldeak Idotorbe dantzan jarri zuen.



Txikienek ere izan zuten non gozatua!



Unai eta Iñigo Loiolak irabazi zuten mus txapelketa.



Auzotarren bazkarirako jana prestatzen.



Prozesioa egin zuten San Pedro Egunean.



Errifako zozketaren irabazleak: Lehen saria, Joseba Arrizabalagak jaso du, eta bigarrena, Jose Mari Loiolak.

Hamalau talde eta 278 jokalari izango ditu Sanlok datorren denboraldian

Garagardo feria antolatu dute irailerako, eta han aurkeztuko dute denboraldi berria

Sanlo eskubalo taldeak amaitu du aurtengo denboraldia. Ekainaren 28an egin zuten batzar orokorra, eta bertan, memoria ekonomikoa aurkeztu eta denboraldiko lorpenen errepaso eta datorren denboraldirako aurreikuspenak egin zituzten. Klubak 2.500 euroko irabaziak izan ditu aurten, eta ondorioz, datorren urterako kuotak ez igotzea erabaki dute. Klubaren finantziarioari laguntzeko, Sanlobeerfest garagardo jaia antolatu dute irailerako. Hilaren 12tik 15era bitartean jarriko dute karpa Maalan, eta egun horietan zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte. Festa hori aprobetxatuz, irailaren 14an aurkeztuko dituzte denboraldi berriko taldeak eta familia argazkia aterako dute.

Kirol lorrean, bestalde, zuzendaritzak nabarmendu du senior nesken taldeak zilarrezko mailan jokatu duela eta senior mutilen bigarren taldeak Lurraldeko lehen mailan jokatu duela datorren urtean.



Era berean, Sanlo eskolak gaztetxoak eskubalaira erakartzeko egiten duen lana txalotu zuten, eta eskerrak eman zizkieten denboraldian zehar antolatutako ekintzak aurrera eramaten lagundu eta taldeen babesle izan diren enpresa eta erakundeak. Datorren denboraldiari begira, federatutako hamalau talde izango ditu klubak, eta Sanlo eskolan hiru talde egongo dira. Guztira, 278 jokalari ditu Sanlok.

Infantil mutilak Eslovenian

Infantil mutilen bi taldeak Esloveniako

Europako eskubalo jaialdian ari dira parte hartzen. Guztira, Sanloko 60 ume eta guraso joan dira Esloveniako Izola hirira, eta irteera hori Sanlok nazioartera egin duen estreinako irteera dela nabarmendu dute klubeko arduradunek. Elgoibarko jokalariek gutxienez bost partida jokatu dituzte, besteak beste, Eslovenia, Serbia, Italia, Hungaria, Txekiar Errepublikak, Polonia edota Taiwaneko taldeen kontra. Aurtengoan hamazazpi herrialdeetako 148 talde batuko dira Europako eskubaloien jaialdian.

40-15 tenis txapelketako finala domekan jokatuko dute



40-15 elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketak iritsi dira amaierara. Joan zen astean jokatu zituzten padel txapelketako finalak, eta Juan Luis Etxaniz eta Patxi Ballejosek irabazi zuten mutiletan. Asier Martija eta Aritz Oyarzabalen kontra jokatu zuten finala, eta 6-3 / 6-2 izan zen azken emaitza. Emakumezkoetan, berriz, Noreen O'Callahan eta Bego Arrutik osatutako bikotea nagusitu zen, Lourdes Pozueta eta Maria Pilar Gorostola 6-3 / 6-3 mendean hartuta. Teniseko finala domeka honetan izango da, 11:30etik aurrera, Mintxetan.

Javier Ezenarro memoriale jokatu dute bihar

Javier Ezenarro memoriale antolatu du Mendaroko Txirrindulari Taldeak biharko. Jubenil mailako proba izango da, eta Gipuzkoako txapelketa izango dute jokoan. Txirrindulariek 84 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Mendarotik irteera 16:00etan, eta Osintxura egingo dituzte bi joan-etorri. Ondoren, Sasiola, Kalbario, Mutriku eta Olatz pasa ostean, Mendarora iritsiko dira.

Antolatzaileek lanerako jendea behar dutela jakinarazi dute, bidegurutzeak zaintzeko bereziki. Laguntzeko prest daudenei 15:00etarako Herriko Enparantzan agertzeko eskatu diete.

Euskadiko Triatloi Txapelketa irabazi du Iñaki Kondek beteranoetan

Asteburu honetan Mutrikuko triatloia jokatu du

Distantzia olinpikoko Euskadiko Triatloi txapelketa irabazi du Iñaki Kondek, 60 urtetik gorakoetan. Donostiako Atletiko San Sebastian taldeak antolatuta, 1,5 Km. igerian, 40 Km. bizikletan eta 10 Km. korrika egin behar izan zituzten partaideek, eta Kondek 2:35:59 denboran amaitu zuen proba. Bost kontinenteetako triatletek hartu zuten parte historikoenetarikoa den Donostiako triatloiarren 28. ekinaldian.

Guztira, 873 lagunek eman zuten ize-na, baina 734k lortu zuten proba amaitzea. Iñaki Kondek gain, beste hiru elgoibartarrek ere amaitu zuten proba: Javier Fernandez De la Lamak 168. egin zuen, 2:22:54 denborarekin; Egoitz Mendikute Ferreira 434. postuan iritsi zen, (2:37:43), eta Jose Ramon Cabellok 558. egin zuen (2:46:37).



Asteburuan, Mutrikun

Datorren asteburuan Distantzia Ertaineko Euskadiko Triatloi Txapelketan parte hartuko du Kondek, Mutrikun. Saturrarán inguruan 1.900 metro igerian, 90 kilometroko ibilbidea bizikletaz eta 21 kilometro korrika egingo dituzte parte hartzaileek.

Maite Maiorak bigarren egin du Espainiako mendi lasterketa txapelketan

Espainiako mendi lasterketa txapelketa jokatu zen domekan Lleidan (Katalunia). 42 kilometroko ibilbidean 3.000 metroko desnibel positiboa gainditu behar zuten parte hartzaileek, eta zenbait tartetan lasterketa buuruan joan bazen ere, azkenean bigarren egin zuen Maite Maiora mendarorak. Emakumezkoetan, Nuria Picas kataluniarrak irabazi zuen. Lasterketa "oso gogorra" izan zela adierazi du Maiorak, baina, era berean, oso pozik agertu da lortutako emaitzarekin.

Euskal selekzioak, bestalde, bigarren egin zuen taldeka, Maite Maiorak (2. postua), Leire Agirrezabalak (5. postua), Aitziber Ibarbiak (8. postua) eta Nerea Amilibiak (11. postua) egini-ko postuen baturari esker.



Gizonezkoetan Andaluziako selekzioa ordezkatu zuen Zaid Ait Malek (4:11:21) izan zen azkarrena. Taldeka, berriz, Euskal Herriko selekzioak lortu zuen lehen postua, Andaluziako eta Aragoiko taldeen aurretik.

Kirol argazkien lehiaketa

Uztailaren 13an bukatuko da Udaleko Gazteria Sailak eta Kirol Patronatuak, Ongarriren laguntzarekin antolatutako kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko epea. Partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta kiroldegian entregatu beharko ditu. Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute, eta saria jasotzeko ezinbestekoa da argazkilaria bera edo ordezkariaren bat Kultur Etxean agertzea.

Gipuzkoako gizon proben txapelketa Mendaron, uztailaren 13an

Gipuzkoako gizon proben txapelketa hasi zen joan zen asteburuan, Orion. Lau talde aritu ziren lehiatzen, eta Orioko taldeak egin zuen lanik onena 47 plazarekin. Berrobiko taldeak 43 plaza egin zituen, Deba-koak 44, eta mendarorrek 39 egin zituzten. Emaitza horrekin zaila izango dute mendarorrek txapelketan aurrera egitea. Uztailaren 13an jokatu dute Mendaron bigarren saioa, eta handik irtengo dira bi finalistak. Bigarren kanporaketan parte hartu duten hiru taldeek dagoeneko jokatu dituzte bi saioak eta Urretxuko eta Aiztondoko taldeek lortu dute finalerako sailkapena. Abuztuaren 4an Aian jokatu da finala.

'Jo ta sua' taldearen bilera, eguaztenean

Jo ta sua Realzaleen taldeak bilera bat egingo du eguaztenean, hilak 10, eta taldeko bazkideez gain, herriko realzaleak gonbidatu nahi dituzte, datorren denboraldirako hainbat gairi buruz hitz egiteko. 19:30an izango da batzarra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

LANA.....

Eskara

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ **632 054 894**
- Emakumea lan bila: Hoteleko zerbitzari lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketarako eginez egingo luke lan. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo zerbitzari lanetarako. ☎ **637 170 781**
- Ingeles eskolak ematen ditut, etxez-etxe. ☎ **680 319 002 / 943 744 062**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edo garbiketarako lanetarako prest. ☎ **678 858 210**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edo garbiketarako lanetarako prest. Esperientzia handia. ☎ **675 765 376**
- Eskola partikularrak ematen dira uztailean. Matematika, kontabilitatea, ekonomia... DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa mailetan. ☎ **666 042 710**
- Mutil gaztea udan txakurrak paseatzeko prest. ☎ **634 134 562**
- Mutil gaztea lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko, banatzaile lanetarako edo iturgintzarako eta erreformetarako prest. ☎ **682 518 370**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest. ☎ **649 086 057**
- Gizonezkoa lanerako prest. Baserri lanetan esperientzia handia. ☎ **943 748 141**

- Gizonezkoa zerbitzari lanetarako prest. ☎ **692 332 871**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest. ☎ **686 052 082**
- Nagusiak zaintzen esperientzia handia dut. Erreferentzia onak. ☎ **616 328 060**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **605 720 298**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **654 416 179**
- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut, Mendaron. ☎ **666 614 519 (Oihana)**
- Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ **617 905 402**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketarako egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea nagusiak ziaintzeko prest, arratsaldetz edo gauetz. Esperientzia handia. Etxeko lanak ere egingo nituzke. ☎ **682 255 834**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edo garbiketarako lanetarako prest. ☎ **638 884 104**

Eskara

- Emakume euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **680 236 382**
- Partikularrak emateko pertsona euskalduna behar dugu Mendaron, DBH1eko ikasle batentzako. DBH4ko ikasle bati ingeles eskolak emateko pertsona ere behar da. ☎ **695 730 442**

ETXEBIZITZAK.....

- Conil: Etxebizitza alokatzen dut, asteka edo hamabostaldika. ☎ **600 596 538**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Ez daukagu umerik. ☎ **600 621 605**
- Benidorm: etxea alokairuan, hondartzatik hasita, bigarren ilaran. ☎ **943 740 628 / 650 557 077**
- Bi lagunentzako logela edo pisua hartuko genuke alokairuan. ☎ **688 467 147**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 052 084**
- Pisua hartuko nuke alokairuan, 3 logelakoa. ☎ **671 289 584**

GARAJEAK.....


- Bi garaje plaza alokatzen ditut Ermuaranbide 9an. Garaje irekiak dira. ☎ **943 743 125 / 686 480 615**

BESTELAKOAK.....

- Logela klasikoa salgai, egoera onean. Bi ohe (90x1,96cm), somierra eta koltxoia barne, mahaitxo ere bai. 600 euro. ☎ **659 986 506**
- Belarritako bat topatu dut Ikastolako aldapan. Zilar kolorekoa da, aro formakoa. Udaltzaingoa laga dut.

KINTOAK.....

- 1957an jaiotako mendaroen bazkaria, uztailean 13an, Landa jatetxean. Txirristakan batuko dira 13:00etan, eta bazkaria 14:00etan egingo dute. ☎ **688 639 332 / 635 208 128**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**




- Oraintxe obrak bukatu eta etxebizitzak entregatu dituzten eraikin batean erosi dugu etxebizitza. Nori dagokio batzarrera deitzea? Normalean, promotoreak edo edozein etxejabe deitzen du batzarrera. Batzar horretan izendatuko dira gobernu kideak, eta era berean, akten liburuarekin egin beharrekoa bideratu, portaleko kontugetarako kontua zabaldu eta IFKa eskatuko da.

Gomendioa: Ugazaben komunitatea, profesional batek osatu behar du, izan ere, komunitate osatzeari buruzko aktak eskakizun zehatz batzuk bete behar ditu.

- Zenbatero egin behar dira jabeakideen batzarrak? Ezinbestekoa da urtean behin batzar arrunt bat egitea. Batzar horretan izendatuko dira gobernu kide berriak, eta batzar horretan aurkeztu beharko dira urteko kontuak: gastuak eta datorren urterako aurrekontua. Aparteko bilerak nahi beste egin daitezke. Hori bai, komeni da soilik beharrezkoa denean deitzea batzarrera. Presidenteak, zuzendaritza-batzordeak edota administrariak erabaki ezin ditzakeen gaiak bakarrik eraman behar dira ezohiko batzarretara. Segurtasun-fata juridikoak saihesteko, ez da komeni ezohiko batzarrak egiteko eskubideaz abusatzea.

Gomendioa: Balekoak izateko, legeak zehaztutako eskakizunak bete behar dituzte jabeakideen batzarrak egindako deialdiak

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
 Euzko Enpresa Administrazioen Kontseilua



• Zorionak zure 5. urtebetetzean, maitia. Jarraitu margotzen gure koloretako ametsak, **Teshale**. Nahia eta etxekoan partez.



• Zorionak etxeko printzesari! 5 urte handi egin dituzu dagoeneko. Ondo pasa zure egunean eta muxu potolo bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Markel**, asteartean 6 urte egin zenituelako. Patxo potolo bat etxekoan, eta bereziki, Jon, Paula, Jakes eta Eleneren partez.



• Zorionak, **sorgintxo**, zure 5. urtebetetzean. Patxo handi bat amaren eta izekoren partez.



• Zorionak, **Iker**, asteartean 6 urte beteko dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, Miren eta Aneren partez. Patxo handi bat.



• Zorionak, **Markell** Oso ondo pasatu genuen zure ospakizun egunean. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Ikeren partez.



• Zorionak, **June**, gure etxeko printzesari. Hiru patxo potolo, aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Jon eta Mikell** Patxo asko, familiakoan partetik.



• Zorionak, **bikotel** 2 urte! Muxu potolo bat amaxo eta aitaxoren partez.


AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Uztailak 10ean Mintxetako igerilekuetara irteera. Izenemateak ludotekan edo 656 740 793ra deituz, bezperara arte.

Uztailak 12 ostirala, afari merienda gaztelekuan. Ondoren aire libreko zinemara joango gara



5 barixakua

Aisialdia

10:30 San Fermin Txiki
Atxutxiamaiak antolatuta, San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar.

Zine-forum

21:30 Kafea pastekin
Haizeak antolatuta, Maktub pelikula landuko dute, Loredi Salegi dinamizatzailearekin.

7 domeka

San Ferminak

8:00 Iruñeko entzierroak zuzenean
Kultur Etxeko hitzaldi gelan emango dituzte, hilaren 14ra arte.

Kirola

11:30 Tenis txapelketako finala
40-15 elkarteak antolatuta, Mintxetan.

10 eguaztena

Kirola

19:30 Jo ta sua taldearen bilera
Kultur Etxean.

11 eguena

Politika

19:00 Arnaldo Otergiren aldeko lip dub bideoa prestatzeko bilera
Arnaldo Askatu Herri Ekimenak deituta, Kultur Etxean. Herritar guztiek hartu dezakete parte.

12 barixakua

Kirola

22:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria
Azkaraten.

ZINEA

'Lo imposible'

5, barixakua: 22:30
(Kalegoen plazan)



Zuzendaria. J.A. Bayona. Espainia, 2012. 107 minutu. Drama. Aktoreak: Naomi Watts, Ewan McGregor, Tom Holland, Samuel Joslin. Maria eta Henry Thailandian dira, hiru semeekin neguko oporrak pasatzen. Abenduaren 26an, hoteleko igerilekuan lasai-lasai daudela, itsasoak gora egin eta dena azpian harrapatuko du. Egoera horri aurre egin beharko diote. 2004an Thailandian gertatu zen tsunamian oinarritutako benetako istorioa kontatzen du filmak.

'La vida de Pi'

6, zapatua: 22:30
(Kalegoen plazan)



Zuzendaria. Ang Lee. AEB, 2012. 127 minutu. Drama. Aktoreak: Suraj Sharma, Irrfan Khan, Tabu, Rafe Spall. Pi Patel gaztearen bizimodua kontatzen du filmak. Aita zoologiko baten jabea da Indian, baina hainbat arrazoi tarteko, familia osoa Kanadara joango da bizitzera. Ekaitz baten ondorioz itsasontzia hondoratu egingo da. Pi txalupa baten geratuko da, Bengalako tigre baten laguntzaz. Egoera horretan aurrera egiteko ahalegin guztiak egin beharko ditu mutiko gazteak

OKINDEGIA

7 domeka:
IBARRENEA



BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

5 Yudego
6 Zabaleta
Goizez: Garitao.
7 Zabaleta
8 Barrenetxea
9 Ibañez
10 Garitaonandia
11 Etxeberría
12 Garitaonandia

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Garitaonandia
Garitaonandia
Barrenetxea
Etxeberría
Garitaonandia
Etxeberría
Yudego



II. URTEURRENA

ENRIQUE ITURRICASTILLO AZCUNA

2011ko uztailearen 5ean hil zen, 58 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztaileak 6,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

ALFONSO ARRILLAGA GONZALEZ-DUEÑAS

2012ko uztailearen 4an hil zen.
*“Alfonso beti egongo zara gure bihotzetan
Maria Luisa, Leire eta Andoni besarkada handi bat.”*

Alfonsoren koadrila



ESKERTZA

KONTXI CELAYA ETXANIZ

2013ko ekainaren 28an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

INAXIO EGAÑA LIZUNDIA

“Bioin”

2013ko uztailearen 2an hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen
ditu jasotako doluminak, hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

INAXIO EGAÑA LIZUNDIA

“Bioin”

*Txikitatik gogoan ditugu
une apal eta ederrak
elkarrekin emandako
poztasun eta indarrak
lagun berri bat hartu du
Bioingo zeruko izarrak
gure bizia alaituko du betiko,
osaba, eman diguzun irribarreak.*

2013ko uztailearen 2an hil zen,
85 urte zituela.

Etxekoak, bereziki Alaitz eta Irati



VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak

RPS 49/12



EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85